iametza interaktiboa

# CKEditor webguneetarako testu-editore librea, bere plugin ekosistema eta 'HTML5 audio' pluginaren kasuaren azterketa

**Asier Iturralde Sarasola @aldatsa**

Software eta Teknologia Librearen III. Euskal Mintegia

2016-11-17

ideia batetik errealitatera
komunikazioa + diseinua + teknologia

# Zer da CKEditor?

CKEditor webguneetan erabiltzen den software libreko testu-editore bat da



# FCKeditor-etik CKEditor-era

- Lehen bertsioa 2003an argitaratu zuten FCKeditor izenarekin.
- Izena sortzailearen izenetik dator: Frederico Caldeira Knabben
- Baina ingelesezko FUCK hitzaren antz handia du
- Izen aldaketa: FCKeditor -> CKEditor

# Lizentzia

CKEditor GPL, LGPL eta MPL lizentziak erabiliz banatzen da

# Garapen eredua

- Hasieratik hasieratik software librea
- CKEditor 3tik aurrera Open Development Effort
- CKEditor-ek hartu beharreko norabidean eta ezaugarri berrien diseinuan komunitatearen iritziak kontutan hartzeko saiakera
- Baina ezaugarri batzuk sekretuan garatu zituzten konpetentziaren beldur

# Garapen eredua (II)

- CKEditor 5en garapena erabat publikoa da
- Produktuaren ezaugarrien diseinua Github-eko proiektu bateko issue-tan egindako eztabaida publikoen bidez
- Guztia eztabaidagai publikoki: erabiltzaile interfaze eta erabiltzaile esperientzia, garapeneko erabaki teknikoak (Adb: ES6 erabiltzea), ...
- Erabaki horietan oinarrituta garatzen ari diren CKEditor 5 berriaren kodea ere publiko

CKEditor™ 5

# Negozio eredua

Beren produktu nagusia doan banatzen duten software librea den arren erlazionaturiko zerbitzuak eskaintzen dituzte diru truk.

- **CKEditor Premium** Jabedun lizentzia erabiltzeko aukera eta arreta teknikoa.
- **CKFinder** Fitxategien kudeaketarako softwarearen bertsio osoa ordainpekoa eta jabeduna. Doako bertsioa mugatua baina erabilgarria. Hirugarrenek garatutako alternatiba libreak badira, adibidez, elFinder.
- **Formazioa** Bezeroaren beharretara egokitutako formazio saioak.
- **Garapen pertsonalizatuak** Pluginen garapena, pertsonalizazioa, ezaugarri berrien garapena...
- **Ikuskaritza** Proiektuak ikuskatu, gomendioak egin...
- **Arreta teknikoa** Zuzeneko harremana garatzaileekin norbere arazo konkretuak konpontzeko

# Zer da CKEditor-eko plugin bat

- Pluginek CKEditor-ri funtzionalitate gehigarriak gehitzeko aukera ematen dute, adibidez, botoi berriak gehituz.

- Pluginei esker web garapenari buruzko ezagutzarik ez duten erabiltzaileek jatorrizko funtzionalitateaz gain beren beharretara egokitutako eduki konplexuak sor ditzakete.

# Pluginetan oinarritutako arkitektura

- CKEditor-en oinarrian core edo nukleoa dago. Bere kasa ez du ezer egiten, pluginei JavaScript-eko API bat eskaintzen die.
- Funtzionalitate guztiak pluginen bidez garatuta daude.



# Plugin gordailua

- http://ckeditor.com/addons/plugins/
- Une honetan 489 plugin daude
- Doako pluginak eta ordainpekoak
- CKEditor-en taldeak garatuak eta komunitateak sortuak

# CKBuilder

- Norbere beharretara egokitutako CKEditor editorea sortu eta deskargatzeko tresna: http://ckeditor.com/builder
- 3 abiapuntu: oinarrizkoa, estandarra eta osoa
- Pluginak kendu eta gehitzeko aukera
- Pluginen mendekotasunak automatikoki kudeatzen ditu

# Hilabeteko pluginak

- **Urtarrila**: AutoSave
  http://ckeditor.com/addon/autosave
- **Otsaila**: Leaflet Maps
  http://ckeditor.com/addon/leaflet
- **Martxoa**: Quicktable
  http://ckeditor.com/addon/quicktable
- **Apirila**: Word Count & Char Count
  http://ckeditor.com/addon/wordcount
- **Maiatza**: LoopIndex Track Changes
  http://ckeditor.com/addon/lite
- **Ekaina**: Accessibility Checker
  http://ckeditor.com/addon/a11ychecker
- **Uztaila**: Bootstrap Glyphicon
  http://ckeditor.com/addon/glyphicons
- **Abuztua**: HTML5 audio
  http://ckeditor.com/addon/html5audio
- **Iraila**: Code Editor
  http://ckeditor.com/addon/pbckcode
- **Urria**: Chart
  http://ckeditor.com/addon/chart

# iametzak garatutako html5 audio plugina

- Webguneetan modu erraz batean HTML5 audioak txertatzeko aukera ematen du
- http://ckeditor.com/addon/html5audio

# Historia

- ARGIA.euseko lankideek webgunean lizentzia libredun irratien audioak jarri nahi zituzten
- CKEditor-en funtzionalitate hori ematen zuen pluginik ez zegoen
- HTMLa zuzenean editatzea ez da praktikoa

```
<audio controls="controls" src="adibidea.mp3">
```

# Nola erabili?

- Kurtsorea audioa txertatu nahi den lekuan kokatu eta CKEditor-en tresna barrako bozgorailu itxurako botoian klikatu...



- eta leiho bat irekitzen da...




bertan audioaren URLa sartu eta dagoeneko zerbitzarian dagoen audio bat hautatu daiteke.
Audio erreproduzitzailea nola lerrokatu ere hautatu daiteke.

# Nola erabili? (II)

- Kargatu fitxa erabiliz audio-fitxategi berriak kargatu daitezke zerbitzarira.




- Erabiltzaileen eskaerari erantzunez audioa automatikoki erreproduzitzeko aukera ere gehitu genuen.



# Nola erabili? (III)

- Erdian lerrokatutako erreproduzitzailearen adibidea.




- Ezkerrean edo eskuinean ere lerrokatu daiteke.



# Harrera

- Ikus dezakezuenez oso plugin sinplea da.
- Eskaera zuen funtzionalitate hutsune bat betetzen duenez harrera ona izan du.
- 5.000 deskargatik gora hilabete gutxian.
- Erabiltzaileek beren hizkuntzetara itzuli dute.
- CKEditor-ek abuztuko hilabeteko plugin bezala nabarmendu zuen!

# Zin dagit ez geniela ordaindu (I)



**Chris Garaffa**
@cmg

.@iametza's Simple HTML5 audio plugin for @ckeditor should be a model for all CKEditor plugins. Clean & easy. ckeditor.com/addon/html5aud…

4:36 PM - 16 Sep 2016

3 4

# Zin dagit ez geniela ordaindu (II)

**SmartCore Studio**
@smartcorestudio

@ckeditor @aldatsa Very vell done! It's really one of the best documented plugins in the repository!

8:04 AM - 2 Aug 2016

1 2

# Lizentzia

- html5 audio plugina GNU GPLv3 lizentzia duen software librea da
- Kodea github-en: https://github.com/iametza/ckeditor-html5-audio

# Itzulpenak

- Hasiera batean euskaraz, gazteleraz eta ingelesez argitaratu genuen
- Erabiltzaileek hainbat itzulpen egin dituzte:
  - Alemana: Mischa Sameli
  - Errusiera: smartcorestudio (argitaratutako egunean bertan)
  - Frantsesa: Simon Georget
  - Ukrainiera: Sensetivity



# html5 audio pluginaren negozio eredua

- Argitaratzean erabaki beharra: doan edo ordainduta?
- CKEditor asko erabiltzen dugu, doan banatuta komunitateari ekarpena
- Marketing eta ikuspuntu komertzialetik irabazia: sare sozialetan zabalkundea, aurkezpenak, bezeroei CKEditor kontrolatzen dugula eta plugin arrakastatsu bat sortu dugula erakusteko aukera

# Komunitatearekin harremana

- Mundu mailan erabiliko den zerbait argitaratzen nuen lehen aldia
- Momentuz ez dugu komunitatearen kode ekarpenik jaso
- Itzulpenak bidaltzeko bi aukera: pluginaren orrian iruzkina idatzita edo pull request-a github-en. Itzulpen guztiak github-etik jaso ditugu
- Erabiltzaileek arazoen berri eman digute Github eta CKEditor-eko webgunea erabiliz. Gehienen arazoak konpondu ditugu baina kasu batzuetan ezin lagundu. CKEditor-en inguruan mundu bat dago: CMSekin integrazioa, garapeneko framework-ekin integrazioa...

# Abuztuko hilabeteko plugina



# Abuztuko hilabeteko plugina (II)

Ilusio berezia egin zidan CKEditor-ek euskarazko txio bat bertxiotzeak




**iametza**
@iametza

Gure HTML5 audio plugina @ckeditoren abuztuko hilabeteko plugin bezala nabarmendu dute iametza.eus/euskara/bloga/…

10:51 AM - 2 Aug 2016

3 5

# Abuztuko hilabeteko plugina (III)

Pluginen orrian nabarmenduta agertu zen hilabetez

Plugin of the month

Simple HTML5 audio
Author: iametza interaktiboa

3230
downloads

# Horixe zen guztia. Galderarik?



# Mila esker!

- Aurkezpena:
  https://iametza.github.io/ckeditor-aurkezpena/
- Aurkezpenaren iturburu-kodea (GNU GPLv3):
  https://github.com/iametza/ckeditor-aurkezpena
- Aurkezpena garatzeko Reveal.js erabili dut:
  http://lab.hakim.se/reveal-js/
  MIT lizentzia duen software librea da